

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mahai-ingurua Elgetan 1

*Elgeta,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Lau elgetar, Arantxa (1921) eta Rufina (1927) Aranzeta, Monika Garai (1922-2011), Felisa Basauri (1928), eta Elgetara ezkonduko bergarar bat, Enkarna Zeziaga (1935), elkartu ziren tertulia alai bat izateko asmoarekin. Berriketaldi honetan eskolako kontuak, gerra eta gerraostekoak, lixiba eta labaderoak, herriko pertsonaia ezagunak, Elgoibarko petrikiloa eta erremedio zaharrak ere izan zituzten mintzagai. Eibarrerako errepidea noiz egin zen gogoratzen dute, eta pena handiz, Elgetan desagertzen edo erortzeko zorian dauden baserri zaharrak aipatzen dituzte. Kaleko eta baserriko bizimoduen ezberdintasunak nabaritzen dira tertulian, Felisa eta Monika baserritarrak baitira, eta gainontzekoak kalean jaioak. Ezkerretik eskumara: Enkarna, Rufina, Felisa, Arantxa eta Monika.

Zintak

ELG-063

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-10
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ELG-064

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-10
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Erromerietatik edozein garraiobidetan

- **Erref:** ELG-063/001
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:02

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromerietatik trenez, kamioiz edota oinez ere bueltatzen ziren etxera. Orga bati atzetik helduta ere ibilitakoak dira. Elgetara iritsi eta beste ordubeteko bidea zuen Felisak etxera ailegatzeko.

2. Eskolako bazkaria Kipulakoarenean

- **Erref:** ELG-063/002
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:04:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Eskolara bidean, zapi baten bildutako bazkaria esekita uzten zuen Kipulakoa izeneko etxean, bazkal orduan jatera etortzeko. Baserriko umeak gogorrangoak omen ziren kalekoak baino. Oraingo gazteek ez dute sinesten lehengoek kontatzen dizkieten eskola kontuak.

3. Arropa garbitzea, lixiba

- **Erref:** ELG-063/003
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:07:31

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak nola garbitzen zituzten azaltzen dute. Enkarnak etxean eskuz, "Bolas maravillosas" lixibarekin egiten zuen. Felisak, ordea, sutako hautsarekin arropa sukaldean garbitu eta gero kanpoan zegoen harraskan astintzen zuten. Lagun biren artean bihurtzen zituzten arropak, alanbrean eseki aurretik.

4. Harraskara edo erre kara arropa garbitzera

- **Erref:** ELG-063/004
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:09:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Arropak asteen behin aldatzen ziren orduan. Arropak baldean hartu eta buruaren gainean jarrita joaten ziren harraskara, nork harririk onena harrapatuko. Harraska bi zeuden Elgetan. Enkarnak etxean astintzen zuen arropa, baina ura gutxitzen zenean, erreka joan behar izaten zuen.

5. Artilearen erabilerak

- **Erref:** ELG-063/005
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:12:14

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lastairak (koltxoiak) egiteko artilea errekan garbitzen zuen Felisak. Artilea galtzerdiak eta txalekoak egiteko ere erabiltzen zuten. Ardi beltzen artilea abarkentzako sokak egiteko izaten zen. Felisaren aitak abarkak egiten zituen larruarekin, baina oso labainkorrak zirela dio.

6. Gazte denborako bizimodua

- **Erref:** ELG-063/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:14:06

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Euren gaztetako bizimoduarekin ez dira kexu. Igandetan bapo bazkaltzen zuten. Beti izan zuten zer jan. Oraindik ere taloak, artoa eta morokila jaten dituzte.

7. Aita bonbardaketan galdu zuten

- **Erref:** ELG-063/008
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:17:40

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Rufina eta Arantxaren aitajaunak ehunezko izarak egiten zituen. Frontea Elgetara etorri zenean, baserri batera joan ziren ahizpak. Aita bonbardaketan hil zen. Gerran jendea zein alderditan zegoen, edo alderdiz aldatzen bazen, kontuan hartzen zuten.

8. Gerrako kontu gordinak

- **Erref:** ELG-063/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:43

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Elgetan fusilatu zituzten batzuen istorioak kontatzen dituzte. Elgetan nazionalek soldadu mairuak "libre" uzten zituzten batzuetan. Emakumeek gorde egin behar izaten zuten orduan. Mairuetako bat fusilatu egin zuten.

9. Gorriak, abertzaleak eta CNTkoak elkarrekin

- **Erref:** ELG-063/010
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:22:12

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Milizianoak Elgetan eta Elorrion. Zazpi hilabetez egon zen frontea Elgetan. Abertzaleek, gorriek eta CNTkoek elkarrekin borrokatu zuten. Felisaren amak talo asko egin zituen milizianoentzat. Errazionamendua nola jasotzen zuten azaltzen du Arantxak.

10. Rufina eta Arantxaren anaia okina

- **Erref:** ELG-063/011
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:24:29

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Errazionamendu garaian, estraperloko olioak Eibarren erosten zuten. Rufinak azaltzen du euren okindegian zelako ogi txarra egiten zuten. Okinak ihes egin zuenean, Rufinaren anaiak jarraitu zuen okindegian.

11. Lagun bat balaz zauritua

- **Erref:** ELG-063/013
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:26:52

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Iruñean, Bergaran eta Oñatin egon zen Monika gerra denboran, nazionalekin. Elgetan geratu zirenak, berriz, gorriekin. Euren lagun bat balaz nola zauritu zuten kontatzen dute.

12. Elorriotik sartu ziren nazionalak Elgetara

- **Erref:** ELG-063/014

- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:29:28

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Miliziano asko hilda erori ziren Elgetako zelaietan. Elorrio hartu ezean, nazionalak ez zirela Elgetan sartuko dio Arantxak. Monikak eta lagun batek zauritu asko artatu zituzten gerran.

13. Tupea orrazkeran

- **Erref:** ELG-063/015
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:32:44

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Elgetan hildako batzuen gorpuak ez ziren identifikatu. Monika (88) eta Arantxa (89) elkarrekin ibili ziren eskolan. Felisaren baserrian, jende asko egon zen babestuta. Haietako neskazahar bik tupea zeramaten ilean. Garai hartako orrazkeran, tupea erabiltzea arrunta omen zen.

14. Abadeak meza baserrian ematen zuen

- **Erref:** ELG-063/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:35:12

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Neskazahar bik arrautza bat erdibana jaten omen zuten. Abadea erreztatzen hasten zenean, eibartar bat irten egiten zen gelatik. Baserritik Elgetara meza ematera joaten nekatu zenean, meza baserrian bertan ematen hasi zen abade hori.

15. Nobiotako kontuak

- **Erref:** ELG-063/018
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:37:27

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Rufinaren nobioa Antzuolatik bost urtez etorri zen berarengana, bizikletaz eta oinez. Felisaren nobioak hiru bat ordu behar izaten zituen neska-lagunari etxera laguntzen zion bakoitzean.

16. Oinetakoak apurtu arte dantzan

- **Erref:** ELG-063/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:37:27. **Bukatu:** 00:39:35

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromerietan oinetakoak apurtu arte egiten zuten dantza. Kosta egiten zitzaien erromeria bukatu aurretik etxera joatea. Gaztetan ondo bizi izan zirela diote, zutenarekin konforme.

17. Baserrian hartutakoa udaletxean utzi behar

- **Erref:** ELG-063/020
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:40:35

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean txerria hiltzen zutenean, urdai zati bat udaletxean doan utzi behar izaten zuten. Etxean hartzen zen gari, patata eta babarrunen zati bat ere udaletxera eraman behar zen orduan.

18. Udala baserritarrei ganaduak kentzen

- **Erref:** ELG-063/021
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:17

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Monikaren baserritik behi bat kendu zieten Udalekoak. Behi hori bere kasa itzuli zen etxeko ukuilura, eta berriz eman behar izan zuten. Etxebizitza biko baserri batean, errenteroari ardiak kendu zioten, maiorazkoari emateko.

19. Bati konfiskatu eta besteari oparitu

- **Erref:** ELG-063/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:17. **Bukatu:** 00:45:02

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean, bando galtzaileko baserritarrei kendutako ganaduak kanposantu ostean bildu zituzten, irabazleen artean banatzeko. Zaldi gainean ibili zen elgetar bat ganadua konfiskatzen.

20. Konfiskatutako ganaduak

- **Erref:** ELG-063/024
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:47:44

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Denek ez zuten gauza bera egin, baina gerraostean elgetar batzuek, besteen ganaduak jaso zituztenean, ugazaberi itzuli zizkieten. Monikaren etxetik ere eraman zituzten ganadu batzuk.

21. Eskolako kontuak

- **Erref:** ELG-063/026
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerraostean Monika eta Arantxa ez ziren ibili eskolan, baina besteak bai. Mojak etorri zirenean, banderarekin eman zieten ongietorria. Manuela irakaslea gogoratzen dute. Monika eta Arantxa ez ziren iritsi hiruko erregela ikastera; zatiketetan geratu ziren.

22. Euroak eta pezetak

- **Erref:** ELG-063/027
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:51:28. **Bukatu:** 00:53:16

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Gaur egun oraindik euroak kontatzen nahastu egiten omen dira asko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com